



# *Komunikazio bide nagusia gorputzarena da, haragiarena”*

Antzokia du habitat Phia Ménard artistak, gorputzak eta identitateak berriz inspirazio eta hari. Koronabirusaren testuinguruan egin diogu elkarrizketa, bideokonferentziaz, ahal den neurrian lekua eskainiz irri, begirada eta bisaia keinuen komunikazioari. Komunikazio horrek ez du asetzen eta herritarrak ere kezkatzen dituela dio: “Espero dut beldur horrek errefusara bideratuko gaituela, normalitatera itzultzeko errefusara eta elkartzeari zor zaion balioa ematera”.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  LOUISE QUIGNON

**Nekez egin dezakegu elkarrizketa bizi dugun garai arraro hau aipatu gabe. Sorkuntzaz eta arteaz hitz egiten hasi aitzin galdetu nahi nizuke zein sentazio eta gogoeta dakarzkizun koronabirusaren testuinguruak.**

Usu aipatu izan ditugu klima aldaketa eta nahasmendua, baina prospektiba batean ginen, iduritzen zitzaigun hemendik 30-40 urtera etorriko zirela. Azkenean praktika-denboraldi batean gabela uste dut, bat-batean etorriko zaigunerako preparatzeko balio diguna –gisa horretako pandemien agerpen ohikoak, kataklismoak, ...-. Klima aldaketa saihesteko gisan jendartearen modeloa aldatu behar genuela genionean ezinezkoa zela erantzuten zigiten. Azkenean begibistakoa gelditzen ari da posible dela, birus ikustezen batek erakutsi digu bideratu daitekeela aldaketa. Irudikatu dezakegu neoliberalismotik eta kontsumotik urrun den mundu bat eta horrek garrantzi handia

du. Seguruena gobernuek iraganekoa berrabiatu nahiko dute –baina ez dezatela erran aldaketa ezinezkoa dela, orain dakigulako egingarria dela-. Konfinamenduaren gaia ere hor dugu. Bai, goxoa izan da niretzako, baina kalean direnak edota konfinamendua jasanezina ukan dutenak izan ditut etengabean gogoan.

Ezberdintasun sozialak gogorki sakonduko dira krisiarekin. Antzerki mundukook galdera mahai gaineratu behar dugu: konfiantza esparru izango ote dugu antzerkia? Nola irekiko ditugu antzokiak, ahal bezain batentzat harrera gune izateko eta antzerkiak duen benetako funtzio soziala berreskuratzeko? Krisi honek gogoetara eta apaltasunera behartzen gaitu, baita alfertasunera ere, gogoetatzeko prozesuan gozamina da alfertasun hori.

**Kapitalistaren begietan dirurik ez dakarte arteak eta kulturak. Sorkuntzaren arloak biziko duenaz beldur ote zara?**

Beldur handia dakarkit horrek. Arlo sozial guztiek gogorki pagatuko dute krisia –pagatzeko aukera dutenek izan ezik!– eta bai,

kulturaren sektoreko eragileak izugarritzko zailtasunetan izanen dira. Baina ez naiz kulturarentzat eta artearentzat kezkatzen, betidanik gerrak zeharkatu izan dituztelako. Kulturak ez nau kezkatzen, kulturaren inplikazioaren guztiontzat naiz beldur, zeinuen eta hitzen artea defenditzen dugun ororentzat; baita harremanentzat ere, kultur guneek sekulako ekarpena egiten dietelako herritarren arteko loturei.



***Uste dut desobedientzia gu baino azkarrago bihurtuko zaigula eta denok gabela klandestinitate mota batean sartuko”***

A woman with blonde hair styled in an updo with a dark floral headpiece is sitting on a modern staircase. She is wearing a black cardigan over a patterned top and a matching skirt. She is looking towards the camera with a slight smile. The staircase has a white railing and a large circular opening in the wall behind her, which is a light blue color. The overall aesthetic is clean and contemporary.

# PHIA MÉNARD

KOREOGRAFOA, ANTZEZLEA ETA  
TAULA ZUZENDARIA



# PHIA MÉNARD

NAONED (BREITANIA), 1971

Phillipe izena jarri zioten, gizonezko kategorizatu zuten baina halakorik ez zen. Benetako identitatearen aldarria eta sexuz aldatzeko urratsa egin zituen 2008an: Phia deitzen da eta emakumezkoa da, errotik feminista. Gorputzak, identitateak eta performantziaren gaiak jorratzeko bide du bere sorkuntza, erantzunak baino gehiago galderak bideratzea ukanki helburu.

1992an ikusitako Jérôme Thomasen *Extraballe* ikusgarriak elektroxok efektua izan zuen Ménarden baitan, hortik gutxira artearen mundura eramango zuena. Esku jokoan, dantzan, antzerkigintzan eta mimoan formaturik, Thomasen konpainian sartu zen 1995ean, *Hic Hoc* ikusgarriarekin emanez lehen urratsak.

Thomasekin "ibiltzen ikasirik", 1998an sortu zuen Non Nova konpainia. Orduz geroztik segitzen du konpainia horren zuzentzen, dantza eta antzerkian bereziturik. 2008an abiatutako identitate trantsizioa izan zuen ardatz urte berean taularatutako *P.P.P* obran, zeinetan izotza zuen materia nagusi. Paul B. Preciadorekin batera *In the Mood* lanketa eramaten dabil Bruselako CIFAS eskolan, "generoa eta aldarreak" gaia dutela lan ardatz.

Ménardek artea eta kulturari egindako ekarpena zabala da, azken sorkuntza *Saison Sèche* izanki, sistema patriarkalak emakumeengan bideratu bortizkeria eta kontrola ukanki jomugan. 2014ean jaso zuen Arteen eta Letren Ordenaren Zalduna dekorazioa, Aurelie Filippetti Frantziako kultura ministroaren partetik.

## Gorputza duzu zure sorkuntzaren inspirazio. Nola begiratzten diozu inposaturiko distantziario sozial horri ?

Nola itzuliko gara berriro antzerkira? Nola berrikasiko dugu elkarrengandik hurbiltzen? Kentzea ezin irudikatua zitaizkigun harremanak nola berreskuratuko ditugu? Beldurra eragiten dit horrek ere. Konfinamendu honetan harremanak ditugu gehien eskas; nahiz eta tresna numerikoek komunikazio forma bat ahalbidetu, komunikazio nagusia gorputzarena da, haragiarena. Haragia berreskuratzea behar dugu.

## Izuaren gizarte batean garelako erran izan duzu, gehituz izua eraikuntza sozial bat dela. Birusaren beldurra, geroak dakarrenaren beldurra, leku handia du izuak azken garai honetan.

Aurretik ere existitzen zen beldurra, baina hor errealitate bihurtu zaigu, birusak kutsatu nazake baita kutsatu dezaket ere, nahiz eta ez jakin birusa

dudala. Neurri batean harrigarria da beldur hori, zergatik gara birus horretaz beldur, dakigularik gripeak edota Hiesak ere hil gaitzaketa? Hiesaren lehen belaunaldikoa naiz eta birus horrek populakuntzaren zati bat bakarrik hunkitzen zuen, gainera erbiz erakutsiak zirenak ziren hunkiak: homosexualak, toxikomanak, prostitutak. Koronabirusaz populakuntza gutzia da hunkia eta hori interesgarria da, guztiak hein berean ezartzen gaituelako. Diozun bezala, biharra ere beldurtzen gaitu: Nola biziko gara? Samurtasuna berreskuratzen ahalko dugu? Egunerokoan azkarrenak zaizkigun samurtasun keinu horien galerak kezkatzen gaituela uste dut. Espero dut beldur horiek errefusara bideratuko gaituztela: arriskutsua zaigun normalitatera itzultzeko errefusa batetik eta elkartzeari zor zaion balioa ematera bestetik. Beldurraren baitan beldurraren gaituztea ere bada eta gaituzte horrek sekulako balioa ukan dezake. Beldurra errealki zer den berrikasteko aukera ematen digu tes-



tinguru honek eta hortik, irekitzen zaigu menpean atxiki ahal izateko eraiki dizki-guten beldurrak eta gure beldur errealak ezberdintzeko aukera.

**Distantzia sozialarekin errimatzen duen jendarte bateruntz baldin bagoaz, samurtasunak desobedientziarekin errima lezake.**

Uste dut desobedientzia gu baino azkarrago bihurtuko zaigula eta klandestinitate gisako batean sartuko garela denok. Biziaren benetako balioaz kontzientzia berriz hartzen hasten garenean dugu desobeditzen. Denborarekilako harremnari eta bukaerari lotua da desobedientzia, “zer da bizitzea?” galdera pausatzen dugun unean dugu desobeditzen, azkenean duintasuna berreskuratzeko. Beste batekin momentu bat partekatzea, amodioa egitea, dantzatzea, zigarreta bat erretzea justu zigarreta bat erre nahi delako... ekintza horiei balore bat ematea izango da desobeditzea. Desobedientzia duintasunaren berreskuratze forma bat da.

**Jarri gaitzen zure azken sorkuntzari begira. Saison Sèche obra ikusi ahal izan genuen Angeluko antzokian otsailean. Zazpi emakume biluzirik, eremu hetsi batean, hertsituz doan goiko-zoru baten menpe. Horrela hasten da obra. Zergatik biluztasunaren hautua? Zergatik estali gabeko gorputz horiek?**

Biluztasuna ikusi aitzin, oholtzara igotzen naiz eta gelakoak iraintzen ditut “alua zafrazten dizut!” erranez. Ez naiz ni mintzo, ni kolektibo bat da mintzo, gu bat, gisa horretako irainak jasotzen ditugun emakumeona. Emakume batek bideraturiko iraina izanki, antzokiko emakumeek ez dute haientzat hartzen, gizonen dute jasotzen eta galdekatzeko balio du. Garrantzitsua zitzaidan horrekin hastera. Ondotik agertzen zaizkigu zazpi gorputzak, hankak irekita, postura ginekologo batean, erditzeko posturan. Emakumeon gorputzekiko bortizkeria gune horretara bideratua da eta gorputzeko parte horretatik ere da gorputz oro ateratzen, eskizofrenia hori azaleratu nahi nuen. Biluztasuna ez da erabatekoa, oheko ator motz bat dutelako, haien gorputzei egokiturikoa ez dena, sexua ez dielako gordetzen ere. Emakumeon gorputzak espazioan duen tokia islatu nahi nuen, espazioan beti badelako gizon-emakume harreman hori, tentsio hori, ihiztari eta harrapakinaren arteko harreman hori. Une oro dira begiztatuak, baita goiko-zorua igo-



JEAN-LUC BEAUJAULT

**BILUZTASUNA.** Patriarkatuaren kontroletik atera eta sistema desegiteko bideaz ari da Saison Sèche.

tzen denean ere, begirada baten meneko gara une oro. Ondotik datorren biluztasuna ere garrantzitsua da, haien gorputzaz jabetzen direlako: gerlari ezaugarriak hartzen dituzte, gorputzen kodigoak berreskuratzen dituzte. Kontua da biluztasunaren iruditeria pornopolitika baten esku dela eta horrela uzten badugu emakumearen gorputza beti izango dela objektu pornopolitiko. Pornopolitiko horretaz desegiteko bidea dugu jabetza horren berreskuratzea, gorputzen aniztasuna segurtatzeko.

**Haien sexua tindu beltzez estaltzen dute eta bukaerako agerraldian, paretak apurtzen direnean, kolore bereko likido bat ageri da irekiduretatik isurtzen.**

Bai, sexu gainean ezartzen duten odol beltz hori –hilekoen odola dena– bukaran ere agertzen da. Indarkeria sexis-

taren oinarrian dugu odol hori, gizartearen hastapenaz geroztik emakumeei ez zaielako gudariaren indarra eta balioa lotu, gudukatu gabe galtzen zutelako odola. Botere eraikuntza bat da eta bukaerako odol horrek emakumeek jasan indarkeria, gizonen partetik baita botere patriarkalaren partetik jasan indarkeria irudikatzen du.

“**Biluztasunaren iruditegia pornopolitika baten esku da eta horrela utziz emakumearen gorputza beti izango da objektu pornopolitiko**”

**Sistema patriarkalaren pisua sendi da sorkuntza guztian zehar.**

Espazioa bera da sistema horren sinbolo: jeisten eta igotzen den goiko-zorua eta txuri koloreko eremua, birjintasuna oroitarazten diguna. Zelatatutako gizarte batean gara, etengabean zelaturik gara. Sistema suntsitu daitekenaren mezua ere hor da, azkenean suntsitzen dutelako. Baina ez dute haiek suntsitzen, aurretik egin dutenaren emaitza da paretan bilakaera.

### **Gorputzaren, identitatearen eta materiaren transformazioa biziki presente da zure sorkuntzetan.**

Gizonezko gorputzetik emakumezkora eraman nauen gorputz eta galdezkatze ibilbidea baduen artista bat naiz. Oinarrian trans bat naiz, nahiz eta gaur egun emakume izan. Hainbat kontu zaizkit inportanteak. Lehena, erratea ezer ez dela finkatua. Gizonezko izateko ezintasuna nuela konturatu nintzenen hasi nintzen nabigatzen emakume izatera heldu arte. Gorputz esperientzia izateaz gain, esperientzia politikoa ere izan zen, gorputza objektu politiko delako politikak guztia bideratzen duen gure jendartean. Horrek ekarri nau *Saison Sèche* obraren idazkerara. Performantzia gustuko dut utopia deitu dezakegunarekilako konfrontazio bat delako. Demagun, izotzarekin lan egin izan dut, izotzarekin eskuketa aritu nahi nuen, alta, banekien ezinezkoa zela, erortzen bazen hautsiko zelako eta dena dela, urtuko zelako –aurretik galduriko guduka bat zen, baina gudukak ninduen interesatzen–. Hau da benetako galdera: aurrera egitea, aurrera egiteko ahala ba ote dugun ikustea. Beatrice P. Preciadok dio transak etxe huts batzuk direla eta etxea altzariz nola hornitu galdezketan dabiltzala etengabea. Ibilbide arraroa da, etengabea ari garelako gurea galdezkatzen, gure egiari eta leialtasunari begira. Mundua ere dugu etengabea transformazioan. Gaur egun begibistakoa dugu eta gehituko nuke agian benetako nerabezako krisi batean dugula mundua eta horretaz baliatu behar dugula, beste aukerarik ez dugulako. Ezin dugu iraganari begira egon, horrela ez garelako bizi, eraldaketa onartu behar dugu, garapen berri bat ekarriko digulako. Amodio istorio baten bukaera bezala da, diogularik inoiz ez garela berriro maiteminduko: bizitutako amodioaren dolua egiten dugunean gara berriz amodioari lotzen ahal. Jakinik menperakuntzaren eta sumisioaren gaiek nautela interesatzen, transformazio hori are interesgarriagoa zait. Bizirik izateko bidea dut begi-bistan eta eraldaketan dugu bizirik izateko aukera.

### **Gizonezkoaren gorputzean preso izan zinen urte luzeetan. Zure irudimena ere preso sartzea lortu zuen horrek?**

Uste dut nire irudimena osoki aske zela eta irudimena ninduela salbatu. 80ko hamarkadan, “fantasiatzat” zeukatena adierazteko topatu nezakeen espazio bakarra nuen irudimena. Ene errealtatearen, hau da jendartearekiko nuen egoki-

tasun ezaren kontra egiteko bidea nuen ere. Bizirik segitzea ahalbidetu zidan, irudimenean garelako proiektatzen eta aski indar eta ulertzeko zein desdramatizatzeko nahiko elementu ditugunean, berriro irudimenak gaituelako urratsa ematera bultzatzen, bizi errealean ere egoeraren desdramatizazioa bideratuz. Beldurraz hitz egiten genuen aurreko galderan, horri loturik da ere jendarte judeo-kristaua erruduntasunaren gainean eraikia dela. Erruduntasun horrek edo bideratzen gaitu edo indargabetzen lortzen dugu, azkenean beldurra haizatzuz. Soilik hor izan gaitezke garena eta horrek guztientzat balio du, ez da bakarrik transei mugatzen. Irudimenak laguntzen gaitu horretan, saiakerak egin daitezkeelako, lanketa eraman dezakegulako eta momentu batean konturatzen gara hitz eta ekintza batzuk hartzera eramateko bidea irekitzen digula. Eskerrak irudimena daukagula, bestela ez nintzen bizirik izango.

### **Baina sistema heterocispatriarkala dena kolonizatu nahian dabil. Guztia da kulturala eta eraikia, irudimenean ere eragingo du horrek, ez?**

Irudimena haurtzarotik dugu. Ume bat begiratzu ohartzen gara beti dela epai-kezarik gabe, irudimena garatzen ari, ametsak eta errealtatea juntatuz edota urrunduz. Kontua da objektu politiko izateko hezitzen gaituztela, kontrolagarriak eta lanera bideratuko garen izaki izateko. Artistak dira usu irudimenaz bereizten lortu ez dutenak. Nire baitan sekulako lekua hartzen du irudimena, denbora asko pasatzen dut gertakizunak imajinatzen eta azken finean proiektatzen. Aurreko galderan jorraturiko desobedienciaarekin lotura badu. Zer da desobeditzen duen umea? Askatasunean gelditu nahi duena; bilatu, esperimentatu, miatu, hots, bere irudimena elikatu nahi duena. Bizirik denarekilako lotura da funtsezkoa, beste guztia moldaera da. Bikotearen eskema, familiarena, guzti horiek moldaketa sozialak dira, funtsezkoa harremantzean dugu. Fred Frithi buruzko *Step Across the Border* filmean “jendarteak bideratzea eskatzen didanaz garbitzen pasatzen dut eguna” esaldia entzun daiteke. Subjektua berreskuratzeko hainbat gauza aurtiki behar

ditugu, funtsezkoa berriz atzemateko. Irudimenak laguntzen gaitu funtsezkoa iristen, egun batez funtsezkoa ezartzen dizulako begien aurrean, beste guztiari garrantzia kenduz.

### **Non Nova zure konpainia Non Nova Sed Nove (“ezer ez dugu asmatzen, ezberdinki begiratzen diogu”) erranetik dator. Guztia da performantzia baina interpretazioak ere du pisua. Zer diozu begiradaz?**

Performantziaren interpretazioari dagokionez, distantziario ariketa bat beharrezkoa da. Demagun, distantziario ez bada jartzen, zakildun ume bat ikusi eta mutiltzat joko da, alta bere izaeran ezerk ez digu segurtatzen gizonezkoaren kategorian ezagutuko dela. Beraz zerk egingen du sistemak aldatuko duela? Jendarte sotilaren objektu bilakatuko da eta bilakaraziko dugu ala bihurrituko da? Lagun batek haurdun dela erraten didan aldi hori erreazio bikoitza dut: badakit sekulako plazera dakarkiola baina aldi berean, ezinbestean “zer biziko du ume horrek?” galdera datorkit. Ume bat ukateko desira horretatik –biziki egoista dena, erran dezagun– nola bideratuko da ume hori “nire umea” izatetik “ume bat” izatera? Bai, ume hori nire haragitik, nire odoletik dator baina atzeritar ere da. Zergatik ez da atzeritar gisa ikusia? Hori ikaragarria da eta asko interesatzen nau.

### **Justuki, publikoaren interpretazioari leku asko utzi nahi diozu zure sorkuntzetan, ez duzu gehiegi bideratzen zure lanetan.**

Ahal bezain guti didaktikoa izaten saiatzen naiz beti, sorkuntza ahal bezainbat ikuslearena izatera entseatzan naiz. Bai, sortzailea naiz, baina ez dut nahi sorkuntza nire izatea. *Saison Sèche* nire irudimenetik atera da, baina azkenean interesatzen nauena da edonork bere ikuspuntutik bere egitea. “Alua zafrazten dizut” erran diodan gizonezkoak bere burua galdezkatuko du. Sorkuntzaren bidez jendarteari aukerak ematea, horretan sinetsi nahi dut. Artearen eginbearra da begirada bat ekartzea, – ez erantzun bat izango den begirada bat, baizik eta galdera multzo bat dena–.

“  
**Artearen eginbearra da begirada bat ekartzea –ez erantzun bat izango den begirada, baizik eta galdera multzo bat izango dena–”**



JEAN-LUC BEAUJOURT

**GORPUTZAREN JABETZA.** Norberak bere gorputzaren jabetza berreskuratzeko premia ohartarazten du Phia Ménardek.

Gure harpera erakarria bada publikoa, horrek erran nahi du ikuskizun berriak behar dituela bere irudimena galdezkatu ahal izateko. Beste mundu batzuetan sinesteko beharra esnaraziko diete istorio horiek, askatasun berri batzuei aukera emanez.

### Leku asko hartzen du ikusleak zure sorkuntza prozesuan?

Bai eta ez. Ez duzu publiko batentzat sortzen, lehenik zuretzat duzu egiten. Haatik bai, automatikoki jakin nahian zabilta zerk dakarren sorturikoa beskeen begietara eramateko pretentsioa. Horrek erran nahi du une batean "idazten dudana hain funtsezkoa al da?" galdera potoloa egiten diozula zure buruari. Adierazteko lekuri ez duten zauriak jorrazteko eta plazaratzeko espazioa delako ditu antzerkiak mendeak zeharkatu. Artista naiz erresistentzia ekintza gisa, galdera batzuk pausatzeko beharra dudalako. Ezinbestean gara oholtzara igotzen, bestela ez dugu artea sortzen, *business*-ean gabiltza.

**Zure burua itzultzaile bati konparatu izan duzu: "Gorputz batetik bestera pasa naiz, itzultzaile bihurtu naiz, erran dezaket zer ikusi dudan gizonezkoaz eta emakumezkoaz zer ikusten ari naizen".**

Ulertzeko saiakera etengabea da itzul-

pengintza, ukan dezakegun irekidura formarik handiena, besteak erran nahi duenaren ulertzeko bestearen tokian kokarazten gaituelako. Gizonezko eta emakumezko identitateei dagokionez ere gauza bera da -eta hori diot kasik 30 urtez gizonezkoaren identitate eta larruan egonik eta beraz jendarteko botere-osoan egonik-: kodigoak, ekintzak eta espazioa berreskuratzen ikasi behar izan dut. Berreskuratze horrek ez du erran nahi aurrekoa ahantzi dudunik, gauza batzuk jokatzeko ez banuen gogoko ere, guztia atxiki dut, hizkuntza baten gisara transmititu zitzaidalako. Zentzu horretara diot itzultzaile naizela, biei zuzendu naitekeelako. Itzultzaile postura bitartekoarena ere da, galdeketa eta aldaketa bideratzeko ahalmena duelako. Itzultzaile naiz eta argiki erran dezaket guzti hau eraikuntza absurdo bat dela: ez naiz aldatu, etengabeko garapen batean naiz.

### Philippetik Phiara pasa zarenetik publikoaren begirada aldatu ote da?

Zaila da erantzutea, publiko osoa ezagutu beharko nukeelako, baina bai erran dezaket onginahi handia badela publikoaren partetik. Gure artean dagoen konfiantza harremanari lotua da, publikoak badaki Non Nova konpainiarekin zintzotasuneruntz gabiltzala eta gartzten dudana irudimena oso berezia dela.

### Philippetik Phiara pasa izanak nola eragin du sorkuntza prozesuan?

Idazkera aldatu zait. Philipperen idazkera oso konplexua zen, definitzea zaila zena. Garai horretako sorkuntzei begiratzen diedanean, nahiz eta ulertu, ez ditut batere eskuragarri kausitzen, begibistakoa eta ikaragarria zait sentitu daitekeen ihes egiteko nahia. Arrastoak utziz sortzen dugu ihesean garenean, ez diogu batere erradikala izan zen, zintzotasun eta izaera ardatz bihurtu zen sorkuntza. Bizia sinplifikatzen zaigunean, ez garenean gehiago ihes egiten digunaren berri emateko beharrean, orduan hasten gara garenetik sorkuntzaren bidez benetan hunkitzen gaituen gaiak jorrazten. ●

**MARCOS**  
okindegia

**Benetako  
antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)